



## **2019RAKO ARAUDI PLANA**

39/2015 Legeko 132. artikuluan jasotakoa betez, 2019. urtean udal honek onartu edo aldatu nahi dituen araudi edota ordenantzak honakoak direla adierazten da.

### **SEMINARIXOAREN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

Ordenantza hau aurreikusten zen 2018ko planean baina hainbat arrazoi medio ez da oraindik onartu.

Seminarixoa kultur aretoa eta horren erabilera arautzeko beharrezkoa ikusten denez ordenantza bat idaztea, zehaztuta uzteko zertarako eta zein baldintzarekin erabili ahal izango den, ordenantza hori egitea aurreikusten da

### **KIROL ZERBITZUKO ARAUDIA**

Igarotako urte hauetan udala jabetu da, arautegia zahartuta geratu dela eta ez diola tresnarik eskaintzen gaur egun bizi ditugun hainbat egoerei aurre egiteko, eta horregatik araudi berria prestatu nahi da.

### **TERRAZAK JARTZEKO BAIMENAK ARAUTZEKO ARAUDIA**

Ikusi da une honetan indarrean dagoen ordenantza berritzeko premia dagoela terrazen instalazioa hobeto arautzeko eta ez bakarrik lurzoru publikoan baita ere eremu pribatuetan.

Begara, 2019ko otsailaren 4a